

Getxo >MEETING<



Otsailak 17

Buruan ideia zehatzak baldin badituzu, errazagoa da elkarlanean aritzea.

Topaketak, esate baterako aurreko ostegunean ItsasHub-en izan genuena, garrantzitsuak dira sare profesionala sortzeko; izan ere, honako onura hauek dakartzate:

- / Isolamendutik irtetea ahalbidetzen dute.
- / Elkarrekin sormenez pentsatzera bultzatzen dute.
- / Etorkizunean elkarlanean aritzeko aukera baloratzen laguntzen dute.

Bakoitzak zer egiten duen ikasi dugu, bai eta ideiak pentsatzeko sormen-dinamiken bidez lan egin ere.

Alde batetik, ekitaldi txiki eta handiak sortu ditugu, sormen-estimulu batetik abiatuta. Ohiko pentsaeratik irten eta imajinatzeko beste modu bat aurkitzeko.

Bestalde, enpresa-ikuspuntu batetik Getxon jorratu ditzakegun gaiak aztertu ditugu, elkarlanerako negozio-aukerak antzemateko eta gaur egun edo etorkizunean beharizan horiei erantzuteko.

Oso ideia interesgarriak landu genituen, eta are interesgarriagoak izan ziren elkarriketa horietatik sortu ziren konexioak. Batek jakin etorkizunean gauzatuko diren edo Getxo MEETING-eko hurrengo saioetan egingo diren.

Gogoratu:

- Elkarrekin ideiak pentsatzeak sormena eta emozio positiboak areagotzen ditu.
- Getxon dauden erronkak lagungarriak izan daitezke zure negozio-ildoetarako.
- Beharizan berari erantzun dakioko estrategia desberdinak baliatuz. Horregatik da horren garrantzitsua estimulu berriak izatea.
- Burua egunerokotasunetik ateratzea lagungarria da beti sormen-autoestimurako.

Hurrengoan ikusiko dugu elkar, ezta?